

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

PLAN ESTRATEGIKOA 2024 - 2028

www.ehu.eus/web/zientzia-teknologia-fakultatea



Aurkibidea

1. Aurkezpena
2. Metodologia
3. Eginkizuna
4. Ikuspegia
5. Estrategia
 1. Ardatza: Prestakuntza
 2. Ardatza: Ikerkuntza
 3. Ardatza: Transferentzia
 4. Ardatza: Pertsonak
 5. Ardatza: Kudeaketa
6. Aginte-aula

Ikuspegi-lerro bakoitzari lotutako adierazleak
Helburu estrategikoei lotutako adierazleak
7. Balioak



01. AURKEZPENA

2005etik aurrera, UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateak (ZTF-FCT) nola jardun behar duen finkatzeko gidalerro estrategikoak zehaztu ditu, Ikastegiko plan estrategikoetan jaso direnak. 2017-2023 aldirako Plan Estrategikoa bukatu denez, 2024ko azken hiru hilekoan gogoeta berri bat egin da UPV/EHUko estrategiarekin lerrotuta egon beharko den Fakultateko Plan Estrategiko berri bat finkatzeko.

Gogoeta hori egiteko Ikastegiko Teknikariek eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzueta Langileek (TEKAZEL), Irakasle eta Ikertzaileek (IRI), ikasleek eta kanpoko eragileek osatutako lantaldeak sortu ditugu, UPV/EHUko Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzuko (KEIZ-SCEI) bideratzaileek zuzendu dituztenak.

Dekanotza-taldeak parte hartu izana eskertzen die talde horien partaide izan diren guztiei; izan ere, egin dituzten ekarpenak eta inplikazioa oinarritzkoak izan dira Fakultatearen AMIA (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak) zehazteko. Hain zuzen ere, ekintza estrategiko ugari AMIA analisisian dute sorburua, eta ekintza horiek helburu estrategikoak osatzen dituzte, plana xedatzen duten ardatzetan multzokatuta daudenak.



02. METODOLOGIA





03. EGINKIZUNA

Zientzia eta Teknologia Fakultatea Euskal Herriko Unibertsitateari dagokion ikas-tegi bat da, esparru zientifiko-teknologikoko ezagutzak sortzen, garatzen eta transmititzen dituen. Haren eginkizuna zientzian eta teknologian espezializatutako profesionalei eta zientzialariei erabateko prestakuntza ematea da, baita haien espiritu kritikoa eta konpromiso etikoa garatzea ere. Irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren berrikuntza, zor zaion gizartearen beharrei erantzutearekin batera, hura kudeatzeko funtsezko oinarriak dira.

04. 2028 IKUSPEGIA



Ikasleek kalitateagatik eta eskaintza akademiko zabalagatik ikastegi bikaintzat hartzea.



Komunitate zientifikoak haren ikerketa-maila altuagatik eta ikerketen aniztasunagatik aintzat hartzea.



Unibertsitate-komunitateak haren kudeaketa aurreratuagatik eta etengabe hobetzeko konpromisoagatik erreferentzia-fakultatetzat hartzea.



Enplegatzaileek arlo zientifikoko eta teknologikoko profesional kualifikatuen prestakuntzan zentro aitzindaritzat hartzea.



Gizarteak unibertsitate-ikastegi prestigiotsutzat hartzea.

05. ESTRATEGIA

Estrategia Ikuskera ildoak lortzeko abian jarri beharreko neurrien multzoa da. Horretarako, helburu estrategiko batzuk zehazten dira, finkatutako ardatz estrategikoen inguruan multzokatuta, eta helburu horiek lortzea erraztuko duten egin beharreko ekintza estrategikoak zehazten dira. Zehazki, 5 ardatz, 14 helburu eta 29 ekintza estrategiko definitu dira, eta jarraian zehazten dira.



A photograph of a classroom full of students sitting at their desks, focused on their work. In the foreground, a young man in a dark sweater and a young woman in a red top are looking down at papers or devices. Other students are visible in the background, some looking at papers and others at their phones.

1. Ardatza: PRESTAKUNTZA

1.1 HELBURU ESTRATEGIKOA

IKASLEEN BEHARRETARA EGOKITUTAKO IRAKASKUNTZA-ELEANIZTUNA EZARTZEA

Ekintza estrategikoak

AE 1.1.1 Graduuko titulazioetako hautazkoen eskaintza egokitzea titulazioa bi hizkuntza ofizialetan bukatu ahal izateko, hizkuntza bakoitzean eskaintzen den hautazko-kopurua antzekoa izanik.

AE 1.1.2 Ikasle bisitarien erakartzea sustatzea.

AE 1.1.3 Masterrak ikasle eleaniztunen oraingo beharretara egokitzeko aukera aztertzea.

1.2 HELBURU ESTRATEGIKOA

GRADUKO ETA GRADUONDOKO IRAKASKUNTZA-ESKAINZA EGUNERATZEA

Ekintza estrategikoak

AE 1.2.1 Ikastegiko titulazioak berrikustea eta eguneratzea gizartearen beharretara egokitzeko.

AE 1.2.2 Titulazio bikoitzak ezartzeko aukera aztertzea.

AE 1.2.3 Gizartearen beharrak aztertzea interesgarriak izan daitezkeen mikrokredentzialak diseinatzeko.

1.3 HELBURU ESTRATEGIKOA

IKASLEEN PRESTAKUNTZA SENDOTZEA ZEHARKAKO GAITASUNETAN (SOFT SKILLS)

Ekintza estrategikoak

AE 1.3.1 Komunikazio- eta pertsona arteko gaitasunak, pentsamendu kritikoa etab. lantzen dituen prestakuntza diseinatzea ikasleentzat.

AE 1.3.2 Ikasleen prestakuntza GIHein lerrokatzea.



2. Ardatza: IKERKUNTZA

2.1 HELBURU ESTRATEGIKOA

DIZIPLINA UGARIREN BATERATZEA SUSTATZEA IKERKETA-TALDEEN ARTEAN

Ekintza estrategikoak

AE 2.1.1 Ikerketa-taldeen arteko bilerak sustatzea.

2.2 HELBURU ESTRATEGIKOA


IRAKASKUNTZAREN ETA IKERKUNTZAREN ARTEKO ELKARRERAGINA HOBETZEA

Ekintza estrategikoak

AE 2.2.1 Ikerkuntzarekiko interesa sustatzea ikasleen artean.

AE 2.2.2 Ikasleen partaidetza erraztea ikerketa-taldeen arteko bileretan.

AE 2.2.3 Ikerketa-taldeetan egiten diren GrALak aurkezteko jardunaldiak antolatzea.





3. Ardatza: TRANSFERENTZIA

3.1 HELBURU ESTRATEGIKOA

GIZARTEAN IKASTEGIKO IKERKUNTZA, IRAKASKUNTZA ETA TRANSFERENTZIA HEDATZEA

Ekintza estrategikoak

AE 3.1.1 Sare sozialen bidez Fakultateko jarduerak ezagutaraztea.

AE 3.1.2 Fakultateko irakaskuntza eta ikerkuntza hedatzeko edukiak sortzea.

3.2 HELBURU ESTRATEGIKOA

INGURUKO ENPRESEKIN ETA ERAKUNDEEKIN HARREMANAK SUSTATZEA

Ekintza estrategikoak

AE 3.2.1 Enpresekin eta erakundeekin eztabaida-lekuak sortzea.

AE 3.2.2 Jardunean dauden egresatuekin harremanak indartzea.





4. Ardatza: PERTSONAK

4.1 HELBURU ESTRATEGIKOA

IKASTEGIKO LANGILEEI EGITEN ZAIEN HARRERA HOBETZEA

Ekintza estrategikoak

AE 4.1.1 Fakultatean sartu berri den IRIarentzako eta TEKAZELarentzako harrera eskuliburuaren egokitasuna berrikustea.

AE 4.1.2 Fakultatean sartu berri den IRIak eta TEKAZELak harrera eskuliburuak eskuratzeko prozesua erraztea.

4.2 HELBURU ESTRATEGIKOA

IKASLEEN ETA LANGILEEN PARTAIDETZA SUSTATZEA FAKULTATEARENTZAT INTERESGARRIAK IZAN DAITEZKEEN PROIEKTUETAN

Ekintza estrategikoak

AE 4.2.1 Ikasleei laguntzeko ekimenak sustatzea (oraingo Entzute eta Erantzute Sarea).

AE 4.2.2 Ikasleen elkarteen jarduerak sustatzea.

AE 4.2.3 Fakultateko batzordeen eta jarduera-koordinatzaileen ardura sustatzea eta balioestea.

4.3 HELBURU ESTRATEGIKOA

IKASTEGIKO LANGILEENTZAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMA ESPEZIFIKO BAT EZARTZEA

Ekintza estrategikoak

AE 4.3.1 Langileen prestakuntza-beharrak aztertzea.

AE 4.3.2 Langileek haien lana egin dezaten antzeman diren beharrak asetzeko prestakuntza-programa diseinatzea.

4.4 HELBURU ESTRATEGIKOA

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA

Ekintza estrategikoak

AE 4.4.1 Euskararen erabilera sustatzeko jarduerak diseinatzea eta eremuak (arnasguneak) sortzea.



5. Ardatza: KUDEAKETA

5.1 HELBURU ESTRATEGIKOA

IKASTEGIKO IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA OPTIMIZATZEA

Ekintza estrategikoak

AE 5.1.1 Irakaskuntza-jardueren ordutegiak diseinatzeko prozesua aztertzea eta hobetzea.

AE 5.1.2 Titulazioen koordinazioarekin lotutako prozedurak aztertzea eta hobetzea.

5.2 HELBURU ESTRATEGIKOA

IKASLEENTZAT IDAZKARITZAKO IZAPIDEAK OPTIMIZATZEA

Ekintza estrategikoak

AE 5.2.1 Online-izapideetan erabilitako inprimakiak aztertzea eta hobetzea.

AE 5.2.2 Idazkaritzako izapideak ebazteko denbora murriztuko luketen mekanismoak ezartzea ikasleentzat.

5.3 HELBURU ESTRATEGIKOA

IKASTEGIKO INSTALAZIOAK MANTENTZEA ETA HOBETZEA

Ekintza estrategikoak

AE 5.3.1 Ikastegiko instalazioak eta azpiegiturak hobetzea.

06. AGINTE-TAULA

Aginte-aulak ikuspegi-ildoei eta helburu estrategikoei lotutako adierazleak eta jomugak jasotzen ditu. *A priori*, lortu beharreko helburuak zenbakiz adierazita planteatzea ahalbidetzen dute, eta *a posteriori*, betetze-maila ebaluatzea. Plan honetan honako adierazle eta jomuga hauek aukeratu dira.



Ikuspegi-lerro bakoitzari lotutako adierazlea

JOMUGA
2028



Ikasleek haren kalitateagatik eta eskaintza akademiko zabalagatik ikastegi bikaintzat hartzea.

Egokitzapen-tasa

70%



Komunitate zientifikoak haren ikerketa-maila altuagatik eta ikerketen aniztasunagatik aintzat hartzea.

Shanghai sailkapenean UPV/EHUko batez bestekoaren gainetik agertzen diren Ikastegiko ikerketa-arloen kopurua

4



Unibertsitate-komunitateak haren kudeaketa aurreratuagatik eta etengabe hobetzeko konpromisoagatik erreferentzia-fakultatetzat hartzea.

Beste fakultate batzuetako zuzendaritza-taldeekin izandako bilera-kopurua

12



Enplegatzailleek arlo zientifiko eta teknologikoko profesional kualifikatuen prestakuntzan zentro aitziparitzat hartzea.

Graduatuen enplegu-tasa

80%




Gizarteak unibertsitate-ikastegi prestigiotsutzat hartzea.

Graduko ikasle berrien batez besteko nota (14tik)

11,5

Helburu estrategikoei lotutako adierazleak



1. Ardatza: Prestakuntza

JOMUGA
2028

1.1. HE. IKASLEEN BEHARRETARA EGOKITUTAKO IRAKASKUNTZA-ELEANIZTUNA EZARTZEA

Euskarazko hautazko irakasgaien kreditu-kopurua/Titulazioko egin beharreko hautazko kreditu-kopurua _____

1,2

Gaztelaniazko hautazko irakasgaien kreditu-kopurua/Titulazioko egin beharreko hautazko kreditu-kopurua _____

1,2

1.2. HE. GRADUKO ETA GRADUONDOKO IRAKASKUNTZA-ESKAINITZA EGUNERATZEA

Ikasturte akademiko bakoitzean eskainitako titulazio ofizial berrien eta berezko irakaskuntza berrien kopurua _____

5

1.3. HE. IKASLEEN PRESTAKUNTZA SENDOTZEA ZEHARKAKO GAITASUNETAN (SOFT SKILLS)

Zeharkako gaitasunak lantzeko eskainitako prestakuntza ikastaroen eta/edo tailerren kopurua _____

5



2. Ardatza: Ikerkuntza

JOMUGA
2028

2.1. HE. DIZIPLINA UGARIREN BATERATZEA SUSTATZEA IKERKETA-TALDEEN ARTEAN

Dekanotzak antolatutako bilera-kopurua

2

2.2. HE. IRAKASKUNTZAREN ETA IKERKUNTZAREN ARTEKO ELKARRERAGINA

Borondatezko praktiken kopurua antolakuntza unitateetan

70

Dekanotzak antolatutako jardunaldi zientifiko-teknologikoetara
bertaratutako ikasle-kopurua

200



3. Ardatza: Transferentzia

JOMUGA
2028

3.1. HE. GIZARTEAN IKASTEGIKO IKERKUNTZA, IRAKASKUNTZA ETA TRANSFERENTZIA HEDATZEA


Sare sozialen bidez hedatutako albisteen elkarreragin-kopurua

100

3.2. HE. INGURUKO ENPRESEKIN ETA ERAKUNDEEKIN HARREMANAK SUSTATZEA

Dekanotzak inguruneko enpresen eta erakundeekin lankidetzarekin
antolatutako ekitaldi-kopurua

2



4. Ardatza: Pertsonak

JOMUGA
2028

4.1. HE. IKASTEGIKO LANGILEEI EGITEN ZAIEN HARRERA HOBETZEA

Harrera-informazioa jasotzen duten pertsonen ehunekoa _____

90%

4.2. HE. IKASLEEN ETA LANGILEEN PARTAIDETZA SUSTATZEA FAKULTATEARENTZAT INTERESGARRIAK IZAN DAITEZKEEN PROIEKTUETAN

Ikasleen elkarteek antolatutako jarduera-kopurua _____

5

Ikasleei laguntzeko ekimenetan parte hartu duen pertsona-kopurua
(oraingo Entzute eta Erantzute Sarea) _____

20

4.3. HE. IKASTEGIKO LANGILEENTZAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMA ESPEZIFIKO BAT EZARTZEA

Dekanotzak Ikastegiko langileentzat antolatu duen prestakuntza
espezifikoko jarduera-kopurua _____


2

4.4. HE. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA

Fakultatean euskara sustatzeko eta erabiltzeko jarduera-kopurua _____

2





5. Ardatzza: Kudeaketa

JOMUGA
2028

5.1. HE. IKASTEGIKO IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA OPTIMIZATZEA

Ekainaren 15erako ordutegia grabatuta duten taldeen ehunekoa **80%**

5.2. HE. IDAZKARITZAKO IZAPIDEAK OPTIMIZATZEA IKASLEENTZAT

Ikasleen gogobetetze-maila idazkaritza-zerbitzuarekin (10etik) **9**

5.3. HE. IKASTEGIKO INSTALAZIOAK MANTENTZEA ETA HOBETZEA

Ikastegiko instalazioak eta azpiegiturak hobetzeko egindako ekintza-kopurua **40**



07. BALIOAK

Erabaki estrategikoak antolaketa-identitatearekin bat datozen ebaluatzeko esparru bat eskaintzen dute balioek. Eginkizunarekin eta Ikuspegiarekin lotuta daude, eta Fakultateak bikaintasun akademikoarekiko, ikasleen prestakuntza integralarekiko, gizarte-inpaktuarekiko eta ezagutzaren garapenarekiko konpromisoa islatzen dute. Gure balioak hauek dira:



BIKAIN TASUN AKADEMIKOA



BERRIKUNTZA



LAN KIDETZA ETA TALDE LANA



KOMUNIKAZIOA ETA GARDENTASUNA



**GIZARTE ERANTZUKIZUNA ETA
JASANGARRITASUNA**



ETIKA ETA INTEGRITATEA



INKLUSIOA ETA ANIZTASUNA



ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA

50 URTE
AÑOS
1968 - 2018
Biba Zientzia!
Ciencia Viva